



EH Bildu talde politikoa Elkarrekin Donostia talde politiko mistoa

Grupo político EH Bildu

Grupo político mixto Elkarrekin Donostia

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
Tel. 943481717

NEGUKO PROTOKOLOA ALDATZEAREN ETA LA SIRENA ATERPETXEA IREKITZEAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Izar Hernando Iberok eta Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta neguko protokoloa aldatzearen eta La Sirena aterpetxea irekitzearen inguruko **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran aztertzeko. Mozioa 2024ko urtarrilaren 15ean eta 2023ko abenduaren 11n Pertsonen Batzordean egindako interpelazioen ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroan euri asko egin zuen Donostian, urtarrileko lehen asteetan hotza, baita San Sebastian egunaren bezperan eta gauean bertan ere. Kostako izozte arriskurik ez da izan negu osoan Euskalmeten arabera, ordea, San Sebastian egunera arte. Eta horregatik, azarotik hona La Sirena aterpetxea ez da ireki. Horregatik, La Sirena aterpetxea ez zen ireki, "Ateak Zabalik" neguko protokoloak ezarritako minimoetara mugatuz, eta horretarako prest dauden 100 oheak erabili gabe mantendu dira neguan zehar. Bitartean, Donostian gora doa kale egoeran eta bazterkeria arriskuan dauden pertsonen kopurua: %81 igo da azken sei urteetan, Eusko Jaurlaritzaren Etxerik Gabeko Pertsonen VI. txostenaren arabera. Txostenak emandako datuen arabera, 2022an 326 dira - gutxienez- Donostian kale egoeran dauden pertsonak.

Datuak okerrera doaz, baina Donostian protokoloak eta baliabideek ia ez dute aldaketarik izan azken 10 urteetan: urtean zehar erabilgarri dauden 143 oheen zerbitzua motz gelditzen da hirian bizi dugun errealitateari erantzuteko. Negurako aurreikusitako "Ateak Zabalik" zerbitzuak (Servicio de Puertas Abiertas) jasotzen du La Sirenan prest dauden 100 oheak erabiltzeko aukera. Hala ere, soilik izozte arriskuan aktibatuko dela dio protokoloak berak. Ondorioz, erabiltzeko prest dauden 100 ohe horiek erabili gabe gelditzen dira izozteetara iritsi arte, eta kalean lo egin behar izaten dute pertsona askok, hotza, euria, hezetasuna eta gau luzeari aurre eginez. Baina, kostalde honetan zeropeko graduetara iristea ezohiko egoera dela dakigun bezala, Donostian hotz handia pasatzeko zeropeko tenperaturetara iritsi beharrik ez dela badaki edozein donostiarrek.

La Sirena bezalako baliabide bat erabiltzeko gertu eduki eta neguko eguraldia dagoen bitartean hutsik mantentzeak "izozte arriskurik ez dagoenaren" argudiopean zentzu komunaren eta humanitate gutxienekoaren aurka egiten du. Are gehiago, neguko protokoloa aldatzea alkatearen eta haren Gobernuaren eskuetan dagoenean; gaur bertan, bihar bertan aldatzea. Bitartean itxita mantentzen bada, Udal Gobernuak hala erabaki duelako da eta La Sirenako 100 ohe horiek erabileran jartzeko borondate politikorik ez delako.

EH Bildu talde politikoa Elkarrekin Donostia talde politiko mistoa

Grupo político EH Bildu

Grupo político mixto Elkarrekin Donostia

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
Tel. 943481717

Hori bera aldarrikatzeko deia egin zuen Donostiako Hiritarren Harrera Sareak urtarrilaren 11n, Udal Gobernuaren jarrera salatze eta aterpetxea irekitzea eskatzeko antolaturiko elkarretaratzean.

Jakina, badakigu kale egoeran dauden pertsonen egoera eta bazterkeria ez direla egun batetik bestera konpontzen diren gauzak, ez dela Donostiaren esku soilik dagoen afera. Gure hiriaren mugak gainditzen dituen gaia izaki, eta modu integralean eutsi nahi izatekotan, Donostiak bestelako administrazioekin eta inguruko herriekin batera pentsatzeko eta planifikatzeko espazioak behar ditu. Jakin badakigu bide horiek arakatzen ari direla pixkanaka, baina ezin gara horren zain egon. Ezin dugu negua igaro erabiltzeko prest dugun La Sirena irekita mantendu gabe, eta beraz, Donostiako Udal Gobernuak bere eskutan duen bitarteko hau erabileran jarri behar du berehala.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatzen duten zinegotziek dakarten **KONTROL MOZIOA**:

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Ateak Zabalik izeneko zerbitzuaren protokoloa aldatu dezala, ahalik eta azkarren, alde batetik, La Sirena aterpetxea negu osoan zehar (azarotik apirilera) irekita egotea arautuz, eta bestetik, egungo atentzio ordutegia zabalduz, 20:30etik hurrengo eguneko 8:30era.
2. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari La Sirena aterpetxea 48 orduko epean urgentziaz irekitzeko, protokoloaren aldaketari itxaron gabe, eta zero azpiko tenperaturak edo izozteak egotera itxaron gabe.

Donostia, 2024ko urtarrilaren 19an



Izar Hernando Ibero
EH Bilduko zinegotzia



Arantza Gonzalez Garcia
Elkarrekin Donostiako zinegotzia